

Gerra aurrekoen hizkera grabagailuan

Badihardugu Euskara Elkarteak ahotsak.com izeneko ekimena jarri du abian, euskarazko ahozko ondarea jaso eta gordetzeko asmoarekin. Dagoeneko gerra aurretik jaiotako 1.103 hizlarien lekukotza jaso dute webgunean, 68 herritako kontuak eta 9.297 pasarte.

ZIHARA ENBEITA

DEBA IBARREAN (Gipuzkoa) sortutako proiektua da Euskal Herriko Ahotsak. Bertako herri askotan zebiltzan ahozko ondarea batzen, baina ez zuten euren artean hartu-eman zuzenik. Asier Sarasua Ahotsak proiektuko arduradunak dioenez, “denok ari ginen proiektuak hutsetik hasten eta pentsatu genuen hobeto zela eskualdean behintzat elkartzea”. Galdetegiak, metodologia, baliabideak, datu baseak... konpartitu eta indarrak batzea, hain zuzen ere. Hortik sortu zen Badihardugu Elkarte. Eskualde horretako euskalkia jaso eta behar duen lekua emateko.

2007an, Deba Ibarretik Euskal Herrira eman zuten saltoa. Izan ere, Koldo Zuazo EHUko irakasleak Euskal Herriko hainbat herritako grabazioak utzi zizkien. Gainera, ordurako Gipuzkoako beste herri batzuetan bazebiltzan beka bitartez bertako euskara jasotzen eta aztertzen. Orduetik hainbat ikerlariren lanak jaso dituzte eta hainbat euskara elkarterekin elkarlana abiatu. Izan ere, orain ere hasierako filosofia bera da: elkarlanean egindako lana. 40 bat euskara elkarte daude momentu honetan proiektuan sartuta, baita kultur elkar- teak eta udalak ere.

Hizkuntza aztertzeke beka asko

Ahotsak.com webgunea martxan dagoenetik hainbat elkarte eta udal- lek jo dute Badihardugura laguntza eske. Sarasuaren esanetan, “elkarriz- ketak egitea erraza da, baina hori



Goian, ezkerrean, elkarrizketa horietako baten ueua, eskuinean Eskoriatzako bi belaunaldi. Beheko argazkietan, bi oiartzuar.

landu eta interneten ipintzea beste kontu bat da. Horretarako azpiegi- tura egokia behar duzu. Dirua behar duzu eta baita metodologia ere. Eta elkarte edo udalerrri txikiarentzako zaila da”. Oso harrera ona izan du ahotsak.com-ek eta dagoeneko bat baino gehiago dira parte hartzera animatu diren norbanakoak, bai transkripzioak egiten laguntzeko prest daudenak edota baita hizlariak topatzeko laguntza eman dutenak ere.

Euskal Herrian azken urteetan ahozko ondarea batzeko edota topo-

nimia aztertzeke hainbat beka atera dira. Sarasuaren ustez, hainbat arrazoi daude atzean. Batetik, gaur egun baliabide gehiago dagoela. “Orain hamar urte bideo kamerak zailak ziren erabiltzeko, mikrofonoak garestiak ziren, eta internet ez zen existitzen. Gaur egun hori guztia errazagoa da eta gainera, Internet dago hedapenerako”. Bestetik, gerra aurreko belaunaldia badoala konturatu garelako dio. Erabat euskalduna zen belaunaldia, gure aitite-amamena. Euskarak ere aurrerapausoak eman dituela uste du. Orain dela hogei

BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEA

urteko helburua euskara batua finkatzea bazen, edo ikastolak martxan ipintzea, edota egunkaria sortzea, edota ETB sortzea... Orain hori guztia sortuta dago eta “baliabideak, denbora eta dirua dago beste gauza batzuetarako”. Euskara batua finkatzea lehentasuna izanik, orain 20-25 urte euskalkiak aipatzea zelan edo halan “tabua” zen. Behin euskara batua finkatuta “hutsune batzuk daudela ikusten da, ahozko ereduak ez direla landu. Euskara batua, gramatika eta hiztegiak beti oinarritu dira idatzizko euskaran, eta ahozko corpusik ez zegoen”.

Lehentasuna Gipuzkoan

Garai batean egindako grabazioak ere jaso dituzte eta ustekabeko aurkikuntzak egin dituzte, proiektuaren laguntzaile Aintzane Agirrebeñaren esanetan. Zarauzko Udalak ateratako bekari esker, hango euskara aztertzen hasi ziren eta hainbat grabazio topatu zituzten kutxa batean, ahaztuta. 1987an egindako lehiaketa batekoak ziren. 30 bat grabazio. 1900. urte inguruan jaiotako jendeari egindakoak. “Eta gehiago egongo dira elkarrekin, etxeetan... Ikastetxeetan ere beti egon da aitite-amamei elkarriketak egiteko ohitura. Grabazio horietako batzuk zakarrontzian egongo dira, baina beste batzuk gordeta egon daitezke”.

Gipuzkoako eta Bizkaiko ahozko ondarea batu dute batez ere. Bizi ere bi probintzi horien muga bizi direlako Badiharduguko kideak. Baina lehentasuna Gipuzkoari eman diote. Euskal Herria kontuan hartuz gero, Gipuzkoan landu delako gutxien. Sarasuaren ustez, gipuzkoarrek berta-

ko hizkera galtzeko arrisku gutxiago ikusten dute eta Deba Ibarretik kanpo euskalkiarenganako sentsibilitate hori ez da existitzen orokorrean. Eta oker daudela uste du. Leku horietako euskalkia Eibarkoa edo Gernikakoa beste aldatzen doalako. “Eta gainera ez dira konturatzen. Ez dira kontziente. Eta ziurrenez errazago aldatu eta desagertuko da Tolosako euskara, Gernikakoa baino. Euskara batuko formak errazago sar-

“Gipuzkoarrek bertako hizkera galtzeko arrisku gutxiago ikusten dute eta Deba Ibarretik kanpo euskalkiarenganako sentsibilitate hori ez da existitzen orokorrean”

Asier Sarasua

tzen direlako. Ondarrutar batek garbi dauka noiz dabilen ondarrutarrez eta noiz dabilen batuan. Zizurkilgo batek ez dakit hain argi daukan”.

Artxiobotatik kanpoko historia

Lekuko euskara eta esaerak bakarrik ez, Euskal Herriko historia ere batzen doaz apurka-apurka. “Lehenengo pertsonan kontatutako historia, ez artxiobotako historia”. Berdin baserriko bizimodua zein arrantzaleena, zein kalekoa. Ahozko ondarea jasotzean alderdi linguistikoaz gain, alderdi historiko zein etnografikoa ere jasotzen baitute. Memoria historikoa, azken batean. Historia osatua,

gainera. Webguneko Gaiak atala ikustea besterik ez dago. Hainbat herritako jendearen kontakizunak baitaude grabatuta.

Sorpresarik ere ez da falta. Ustez komunista edo sozialista den batengana joan eta gaztetan fraide edo monagilo izan zela jakin dute. Edo abesbatzan ibilitako batengana joan eta gaztetan txirrindularia izan zela jakin dute eta lasterketak irabazi zituela auskalo non. “80-90 urteko jendearen bizitza oso aberatsa da. Gauza gehiago probatzen zituzten. Bizi izan zuten egoera politiko eta soziala ere izugarria izan zen. 1905etik 1945era denetik bizi izan zuten. Mundu mailako bi gerra, 36ko gerra, errepublika, Primo de Riveraren diktadura, Alfonso XIII.a, Franco, Errusiako iraultza...”. Azken 40 urtetan gauzak ez dira horrenbeste aldatu Euskal Herrian, ez da horrenbesteko joan-etorririk izan. 1905etik 1945era bitartean “industrializazio gogorra hasi zen, kanpotarrak hasi ziren etortzen, horrek ekarri zituen aldaketa guztiekin... Argindarra orduan heldu zen. Alderdi politikoak orduan sortu ziren. Sozialismoa sortzen ezagutu zuten, nazionalismoa sortzen...”.

Gerra aurreko belaunaldi hori batu dute momentuz grabazioetan. Gerra aurrekoak eta gerra ostekoak bi Euskal Herri ezagutu dituztelako. Horretarako geratzen zaizkien urteak geratzen zaizkie, biologiak agintzen duelako. Hala ere, proiektua ez da epe motzean amaituko. Beti egongo dira eta grabatzeko moduko hiztunak. Gainera, orain arte jasotakoaren zati bat baino ez dute landu. ■

Txapelaburuan ta ibili munduan

Narrika, 18. Donostia
telf. 943428299 www.txapelaburuan.com